

KLARISA

Ume desagertuaren kasua

Arrate Egaña

Marrazkiak: Marimar Agirre



erein

KLARISA

Ume desagertuaren kasua

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2017ko urrian

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Marimar Agirre

© Arrate Egaña

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-147-9

L. G.: SS-1112/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309 F 943 783 133

e-mail: gertu@gertu.net

www.gertu.net

KLARISA

Ume desagertuaren kasua

Arrate Egaña

Marrazkiak: Marimar Agirre

erein

“**KLARISA LUPABITX**, detektibea: kasurik ilunenen argibidea”: horixe dio nire txartelak, eta bai, neu naiz ikerlari ospetsu hori, hain zuzen, lankideen eredu eta lagun atsekabetu askoren itxaropen.

Gaztea ez banaiz ere, bizkor iraun dut zeregin zail horretan. Nire gain hartutako kasu guztiak argitu ditut (makula bakarra daukat historialean, mamuen parkearen misterioarena, baina hori beste kontu bat da). Nirekin batera Samedi daramat beti, ikertzeko ikasia dagoen hiru koloretako katemea. Aspaldi aurkitu nuen, larunbatez, kasualitatez. Orduan ez zen Parisko *banlieue* txiroko kale-katua baino; geroztik, harroputz eta aristokratiko bilakatu da. Ezin mokofinagoa, are melenga, aukeran nahiago du, kutxetako katu-jana baino, txipiroia tintan edo legatza saltsa berdean. Teilatuetako katuak mespretxatzen ditu, hanpurutsu horrek, nahiz eta ia

gauero eurekin atera arnasa hartzera, izarren azpian. Samedik egunez zein gauez ikusmen harrigarria darabil oraindik, eta zakur untxariaren usaimena.

Desagertutako pertsonak bilatzeko eskatzen didate ia beti, nahiz eta behin lorotxo bat aurkitu behar izan nuen. Peluxe-panpinaren itxura hartu zuen txoriak, isiltasunaren zalea izaki, berba eginarazi nahi baitzioten.

Laburbilduz, hasieran esan dudan moduan, arrakasta eta izen ona lortu ditut nire ikerketei esker, eta lanak bata bestaren atzetik heltzen zaizkit.

1. Etxean!

Siberiatik etorri berria nintzen, azkeneko kasua argitzetik, hain zuzen ere. Helina neskatxa oso maiz desagertzen zen etxetik eta gurasoak kezkaturik zeuden. Elurraz bildurik, elurrezko panpina mozorrotzen zen, eskolan



agindutako etxeko lanak ez egiteko. Pneumoniak jota hilko zen, baldin bere trikimailua deskubritu izan ez banu. *Spasiba, spasiba*, eskertu zidaten Helina aurkitzean, baita lana ederki ordaindu ere, errublota. Sekulako hotza pairatu nuen herrialde hartan, 27 gradu zero azpitik, eta artean negua heldu gabe! Zorionez, nire hirira itzuli nintzenean, udazken epel ederrak hartu ninduen: jendea paseatzen zebilen, zirimiria distira ateratzen zuen kaleetan eta gorriz jantzitako zuhaitzen azpiko parkeetan.

Heltzean, taxilariari mailetekin laguntzeko eskatun, etxeak, zaharra izaki, ez duelako igogailurik, eta azkeneko pisuan bizi naiz. Eskupeko batez agurtu nuen gizona, eta kexaka joan zen, nonbait errubloak ez zituelako oso gustuko. *Sweet home*, azkenean etxean!

Egongelako tximinia txikia piztu bezain laster, Samedikatemea abere-poltsa dotoretik irten eta sutondoan kokatu zen, belusezko kuxinean kuzkurtuta, hotza kentzearren; ni, aldiz, betiko sofa zaharrean egokitu nintzen, leher eginda.

Hala ere, eginbeharrek berehala hartu zidaten burua: maletak desegiteaz gain, etxea txukundu behar nuen.



Espioien Dendatik “Eklipse” markako gortinak jaso behar nituen, barrutik kanpora dena ikusten utzi eta kanpotik barrukoa estaltzen dutenak. Bestalde, etxe ondoko Erreproduzio Museoan amaitzeke utzitako gladiadore-estatua baten erretratua bukatu behar nuen. Amaitzeko, lehengusina Benitari eta lehengusina Chloeri deitu behar nien, biek ala biek mezu piloa utzia baitzuten etxeko telefonoan, auskalo zer jazoera larri kontatu nahian. Arraioa! Zenbat eginbehar!



Nolanahi ere, altxatu eta atikoko leihotik etxeko teilatura irten nintzen, lasaitzeko asmoz. Handik hiriari begira geratu nintzen lipar batez; etxe ugari eta edozein neurritakoak ikusi nituen, ibaia auzoak bereizten, eta bukaeran itsasoa, ez oso urruti. Kale batzuetako farolak piztu ziren. Ondo ematen zion udazkenak hiriari. Aire epela usnatu nuen.

Ilaje harrotuzko
katu handi betoker bat
hurbildu zitzaidan, tei-
lak leunki zapalduz. As-
paldiko ezaguna nuen.

—Samedi, zure lagun
Pirata etorri da!

Piratak asko maite
zuen Samedi eta faltan
izango zuen aurreko
egunetan. Hala ere, katemea ez zen kuxinetik mugitu.

—Gauetz, agian, irtengo da —esan nion bisitariari—. Ba-
dakizu nolakoa den gure markesa.

Hantxe utzi nuen katua, geroxeago urdaiazpiko zati-
txo bat aterako niola aginduta, eta bainu gozagarri bat
hartzeko asmoz sartu nintzen bainugelara. Gainerako
guztiak itxaron beharko zuen; atsedenaldia behar nuen.

Burbuilen artean nengoenean, patxada ederrean atse-
den hartzen, telefono-dei aztoragarri hark jo zuen, ordea.

—*Merde!*

